



OHIKO GALDERAK: LEHIAKETATAN ESKATUTAKO PLAZAK ORDENATZEKO FASEA

- Zertan datza fase hau?

Deitutako lehiaketa guztien –espezifikoak zein orokorra– oinarri orokorren arabera, lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte hartu dutenek lehentasun-hurrenkeraren arabera ordenatu beharko dituzte plaza guztiak.

- Nola arautzen da fase hau?

Funtzio Publikoko sailburuordearen ebazpen bidez, lehiaketa espezifiko guztietako eta lehiaketa orokorreko merezimendu guztien balorazioaren behin betiko emaitzak argitaratu ondoren.

Argitaratu eta hurrengo egunean, 5 egun balioduneko epea irekiko da, lehiaketa parte hartu dutenek plazak lehentasunaren arabera ordenatu ditzaten –hala lehiaketa espezifikoetakoak nola orokorrekoak–, eta ezin izango da aldatu lehiaketa bakoitzean ezarritako plaza-hurrenkera.

- Zein langileri eragiten dio fase honek?

Lehiaketa edo kidego batean baino gehiagotan parte harturik, merezimenduen balorazioen behin betiko zerrendetan plaza bat baino gehiago onartuta duten funtzionario guztiei.

- Zer plaza ordenatu behar ditut?

Ebazpena argitaratuko den egunean onartuta ageri diren plazak bakarrik ordenatu behar dira; alegia, deialdian eskatutako baldintzak betez, prozesuan aurrera egiteko eta esleipendun izateko gutxieneko puntuazioa gainditu duen plazak bakarrik ordenatu behar ditu interesdunak.

- Nola jakinaraziko didate fase hau abian jarri dela?

Fase hau abian jartzen duen ebazpena helbide hauetan argitaratuko da:

- Internet: www.euskadi.eus/concurso
- Intranet: Jakina/Langilearen ataria

Interesdunek mezu bat jasoko dute egun berean, argitalpenaren berri emanez.

Horregatik, garrantzitsua da langile guztiek berrestea eskabidean agertzen diren helbideak zuzenak direla, eta, hala izan ezean, mezu bat bidaltzea, aldaketaren berriz emanez, honako helbide honetara:

provision-selección@euskadi.eus

- [Nola izapidetuko dut ordenatzeko nire eskabidea?](#)

Eskabideak, oro har, Jakina/Langilearen Atarian eskura dagoen aplikazioaren bidez izapidetzen dira: Lehiaketa.

Eskabide horretatik, jaso izanaren agiria inprimatu ahal izango du interesdunak, eta eskatutako plazak eta plazen hurrenkera agertuko da bertan.

KONTU EGIN: Izapide hori amaituta egongo da soilik plaza guztiak ordenatuta daudenean eta hurrenkera hori onartzen denean; orduan inprimatu ahal izango da eskabidea.

Jaso izanaren adierazpena inprimatu ezin baduzu, izapidea amaitu ez delako da, eta eskabidea ez da izapidetuta egongo.

5 eguneko epean, hurrenkera hori aldatu ahal izango da, horretarako eskabide berri bat izapidetuta, nahi beste aldiz.

Parte-hartzaileko eskabide bakarra onartuko da, eta, hortaz, ordenazio-ondorioetarako baliozko eskabide bakarra azken izapidetze-egun eta -ordua duena izango da.

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, ezin izango da hautatutako hurrenkera aldatu.

- [Eskabidea internet bidez egin dezaket?](#)

Bai, helbide honetan:

www.euskadi.eus/concurso

Horretarako, lehiaketaren aplikaziorako sarbidea ematen dizun PINa erabili beharko duzu; parte hartu duzun lehiaketetarako behin-behineko onarpena eman zitzaizunean bidali zitzaizun pertsonalki.

- [Zer gertatzen da ordenazio hori egiten ez badut?](#)

Zure plazak ofizioz ordenatuko dira, ordena honetan, hurrenez hurren:

1. Lehiaketa espezifikotako plazak lehenetsiko dira lehiaketa orokorreko plazen aurretik.

2. Lehiaketa espezifikoen artean, lehiaketa bakoitzaren bloke osoka antolatuko dira, EHAA-n deialdiak zein hurrenkeratan argitaratu ziren kontuan izanda:

1. Osasuna
2. Lurralde-antolamendua
3. Ekoizpen-sektoreak
4. Administrazio-kudeaketa
5. Gizarte Laguntza
6. Erakundea
7. Ekonomia
8. Juridikoa
9. Kultura-ondarea
10. Industria eta energia
11. Estatistika
12. Euskara
13. Hezkuntza
14. Ingurumena

3. Lehiaketa espezifikoko bakoitzaren barruan, eta eskabide bat baino gehiago duten parte-hartzaileen kasuan (eskabideak kidego bat baino gehiagotakoak direlako), aurkezpen-hurrenkeraren arabera ordenatuko dira eskabideak, eta lehendabizi aurkeztutakoa lehenetsiko da.

- [Fase honetan dagoen lehiaketaren batean atzera egin dezaket?](#)

Bai. Lehiaketako lanpostuen behin-behineko esleipenaren aurkako erreklamazioak aurkezteko epea amaitzen denean bukatuko da lehiaketan atzera egiteko epea, eta, hortaz, edozein fasetan egin daiteke lehiaketan atzera.

Une honetan egin nahi baduzu, ordenatzeko fasea hasi aurretik pantaila bat aurkeztuko zaizu, zein lehiaketa edo kidegotan parte hartu duzun, eta **“atzera egin”** atal bat izango duzu hor.

Aukera hori hautatzen baduzu, ordenatu behar dituzun plazen artetik desagertu egingo dira lehiaketa horri dagozkion plaza guztiak.

Fase honetan atzera egitea, plazen hurrenkera bezalaxe, alda daiteke, nahi beste aldiz aldatu ere, 5 eguneko epea amaitu artean; eskabide berri bat izapidetu behar da horretarako.

- [Zer esan nahi du lehiaketan atzera egiteak?](#)

Lehiaketan atzera egiteak lehiaketan parte hartzeari uko egitea dakar, eta, ondorioz, lehiaketa bakoitzean izapidetutako eskabidean sartutako plaza guztiei uko egitea.

Ezin da plaza batean atzera egin.

- [Nola ordenatuko ditut plazak?](#)

Lehiaketaren aplikazioan gaitutako atalean: ***lehiaketatan eskatutako plazak ordenatzea***.

Hasierako pantailan, onartutako plazak dituzun lehiaketak edo kidegoak azalduko zaizkizu.

Haietakoren bati uko egiten ez badiozu, hurrengo pantailan plaza guztiak aurkeztuko zaizkizu, zein lehiaketa edo kidegotakoak diren zehaztuta, eta bakoitzaren hurrenkera hautatu beharko duzu orduan.

Lehiaketen artean bakarrik hautatu ahal izango duzu plazen hurrenkera, inolaz ere ez lehiaketa bakoitzean ezarri zenuen plaza-hurrenkera aldatu.

- [Lehiaketan parte hartu dut, baina ezin dut ordenatzeko eskabidea egin. Zergatik?](#)

Fase hau irekita dago soilik zenbait lehiaketatan edo kidegotan plazak onartuta dituzten parte-hartzaileentzat.

Lehiaketa bakarrean hartzen baduzu parte edo lehiaketa bakarrean badituzu plazak onartuta, ezingo dituzu plazak ordenatu, ordena hori lehiaketan parte hartzeko eskabidean zehaztuta dagoelako.

Fase honetan ezin da aldatu lehiaketa batean eskatutako plazen hurrenkera.

Parte hartzeari uko egin nahi badiozu, aurkeztu idatzi bat horretarako gaitutako erregistroetan (39/2015 Legearen 16.4 art.).